



|| Sagardo Egunean jende mordoxka bildu zen Hendaian, eta Bixintxotx ere arrakastatsua izatea espero dute. berria

BixinTXOTX Hendaiako Bixintxo jaiak sagardo gustuarekin

Besten barruan
sagardotegi afaria
izanen da
lehen aldikoz

||| Nora Arbelbide

Sagardoaren kolorea hartuko dute aurtengo Hendaiako bestek lehen aldikoz. Urtero, Jondoni Bixintxo santuaren eguna hurbiltzen dela heltzen dira Hendaiako bestak, eta, aurtengoa, egun horiek sagardotegi txotx garaiarekin lotzea pentsatu du Baleak euskal elkarteak. Alabaina, hauek urtarrilaren 20ko Sebastian santuaren eguna dute erreferentziatzat. Beraz, hitzordu nagusia larunbat honetako Bixintxotx deitu duten sagardotegi afaria izanen da. Hiriko bestak osatzen dituzten usaiko hitzorduei gehitu diete afaria. Baleak elkarteak Besta batzordearen laguntzarekin muntatu du guztia.

Sagardoa txuleta batek lagundurik, hiri erdian, karpa berotu baten azpian, herriko besten giroa berriz piztea du helburua elkarteak. Xede berarekin, afaria aitzin, hiri erdiko ostatu eta elkarrean poteo herrikoian parte hartze-
ra gonbidatu dute. «Afaria eta zintzur bustitzea hiri erdiko elkarrekin garrantzitsua zaigu. Kalean denok elkarrekin besta egitea. Besta hiriaren bihotzera ekartzearekin, giroa aldatzea dugu nahi, epe ertainean. Orain arte Hendaiako bes-



||| Hendaiako Sagardo Eguneako irudi bat.

ten garaian ez zen gauza handirik; hiri erdian hurbiltzean, ez zen ageri hiriko bestak zirenik», azaldu zuen Txema Eguiguren Baleak elkartearen lehendakariak. Eta bestak arrapiztea zer bait bada, euskal kulturaren bitartez izan behar, izatekotan. «Euskara eta euskal kultura integrazioarekin izatea da Baleak elkartearen filosofia». Sagardotegi afariak 20 euro balio du, eta txartelak herriko hainbat ostatu eta dendatan eskura daitezke, baita turismo bulegoan ere. Afariak gain, euskal musikaz gozatzen ahaliko da. 23an, hain justu, Oskorri taldea entzuteko sarrera dohainik izanen da Beltzenian. Biharamunean, Irandatz kiroldegian, Ken 7 eta Xitoak taldeak arituko dira.

Sagardo Egunaren ondotik. Lehen aldia bada ere Bixintxotx afari herriko hiri antolatua dela, Baleak elkarteak sagardoarekin duen harremana aspaldikoa da. Alabaina, badu zazpi urte Sagardo Eguna muntatzen dutela urtero ekainean. Hendaiak, berez, ez du sagardoarekin halako lotura handirik, nahiz eta garaian tokiko laborari anitzek beren etxaldeetan egin. Dena dela, «hendaiarrek atxikimendu handia diote sarradoari», zioen Eguigurenek. «Sagardo Egunaren arrakastak ongi erakusten duen bezala». Eta hain justu, Hendaiako sagardotegi garaia Bixintxotxekin hasi eta Sagardo Egunarekin bururatzea du leloa Baleak elkarteak. Bada orai bi urte sagardotegi afaria muntatu nahian dabilen elkarteak. Egitekotan, proiektua Besta Batzordearekin eramatea beharrezkoa zitzaion. Elkartearen arteko bizi bat



**BIXINTXOEN
EGITARIA**

Bihar hasi eta 25ean bururatuko dira bestak. Pellot kortsarioak irekiko ditu.

Urtarrilaren 16a, ostirala
17:30 Pellot iritsiko da Kanetako portura. Jarraian, Pellot ibilaldia.
18:00 Herriko etxean, Besten irekitzea.
18:30 Moleta Txapelketa eta besta haurrentzat Durruti plazan.

Urtarrilaren 17a, larunbata

16:30 Zintzur bustitzea eta animazioa hiri erdiko ostatu eta elkarrean.
20:30 BIXINTXOTX sagardotegi afaria xapito berotu azpian Durruti plazan (izen emateak urtarrilaren 14a aitzin).

Urtarrilaren 18a, igandea
17:00 Koruen kontzertua Bizente Deuna elizan.

Urtarrilaren 19, astelehena

16:30 Bixintxoetako usaiko pilota partida.
Nagusia: JOKO GARBI
LURO/GARMENDIA
ETCHECAHARETA/URGATEMENDIA-
ren kontra
Jarraian, esku huskako pilota partida
SORHUET/HARIZMENDI-
ARAMBURU/BESSONARTIEN kontra

Urtarrilaren 23a, ostirala
Beltzenian

19:00 Zintzur bustitzea tapekin eta mutxikoak.
21:00 Kontzertua OSKORRIekin (sartzea dohainik)

Urtarrilaren 24a, larunbata Irandatz

19:00 CHRISTOPHE PAVIA Varietes antzokian
RIGOLER, RIGOLER! ikuskizuna (Sarrera dohainik)
22:30 ROCK kontzertua IRANDATZ kiroldegian
KEN 7 eta XITOAK taldeekin
Sarrera: 5 euro

Urtarrilaren 25a, igandea

12:00 Zintzur bustitzea BIDASOAN KANTUZEN kantu herrikoiek eta MUTXIKO ELKARTEAK alaiturik Errepublikan plazan (Egunaldi txarra bada, guztia merkaturan ospatuko da)
16:00 Fandango Txapelketa Beltzenian.
18:00 MUS TXAPELKETA Beltzenialako ostatuan.

izateko gisan. Batzordeak lagundu ditu antolaketan.

Bestalde, diruaren aldetik, irabazi guztiak berri bestaren antolaketan sartuak dituzte. «Helburua ez da etekinik ateratzea, jendea gustura egotea baizik», azpimarratu zuen Eguigurenek. «Sagardotegi afari goxoa prestatuko da, sagardotegietako menua jatera emanen da. Afariaren sosa horretara joanen da. Gainera, afaria etorriko direnentzat oparixko bat abakia dugu. Sorpresa bada ere, giroa pizteko zer bait izanen dela erran daiteke. Kantatzera ere gonbidatuko ditugu»; hots, besta berria izateko elementu guztiak bildu nahi izan dituzte.